

NOLA LORTU ZURE ETXEA GUNE ZIBERSEGURUA IZATEA



Gomendioak

Oraingo egoera honetan langileek beren etxeetan dituzten gailuak erabiltzen dira maiz enpresen sareetara urruneko sarbidea egiteko, eta horregatik bereziki garrantzitsua da gure **etxeak ziberseguruak izatea**.

Babestu zure gailuak pasahitzekin, PINarekin edo informazio biometrikoarekin.

Pasahitz berri, sendo (letra, zenbaki eta ikurrekin) eta desberdinak ezarri zure kontuetarako.

Aldatu **Wi-Fi**ren pasahitza aldiro.






Egin eguneratzeak eta **segurtasun-kopiak aldiro**, gailu guztietan.




Ziurtatu sare sozialetan dituzun kontuetan **ondo konfiguratuta duzula** pribatutasuna.

Ongi administratu aplikazioak, eta desinstalatu erabiltzen ez dituzunak.

Segurtasun-softwarea edo antibirusa instalatu Internetara konektatutako gailu guztietan.

Online erosketak

-  **1** **https://** Toki seguruetan eta saltzaile fidagarriari erosi.
-  **2** Ez egin ongintzako dohaintzarik **benetakoa dela egiaztatu gabe**: egin egiaztapena ezagutzen ez duzun norbaiti dirua aurreratu baino lehen.
-  **3** **90%** Erosi aurretik, **ikertu**: eskaintza bat onegia bada, oso litekeena da benetakoa ez izatea, pentsa ezazu bi aldiz.

-  **4** **Zuhur jokatu zure banku-kontuarekin**: sarritan berrikusi, edozein jarduera susmagarri detektatzeko.
-  **5** Erabilera **esklusiboko txartel bat** erabili online erosketetarako.
-  **6** Ez erosi online gainerako toki guztietan itxuraz agortuta dagoen ezer: dendak **ziurtagiria** izan behar du beti.

Atzematen dituzun iruzurren berri emateko 900 104 891 zenbakira deitu edo incidencias@bcsc.eus helbidera idatz diezagukezu. Mehatxuaren aurkako neurriak hartuko ditugu.

